



ORIOKUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2011ko uztailaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegui, Ekiñe Saizar Larrañaga, Juan Vicente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularume, Miriam Uranga Egurza eta Jokin Izagirre Zabala.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 6/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri ematea. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 7/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 8/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2010eko aurrekontuaren Kontu Nagusia.



- 5.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Txu-Txu trenea erabiltzeko tarifei buruz eta bertan ezartzen diren iragarkien tarifei buruz
- 6.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratua, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- 7.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, honako gaiari buruz: Orioko Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinen Jabeen Komunitatearenak diren lurren lagapena Orioko Udalarari.
- 8.- Onartzea, egoki bada, EAJ talde politikoak aurkeztutako eskaria, udaleko talde politikoen diru-esleipenei buruz.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Zaragueta Herri Eskolako zuzendariak aurkeztutako mozioa, derrigorrezko bigarren hezkuntzako (DBH) lerro bat irekitzeari buruz.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

Gai-zerrenda irakurtzen hasi aurretik, udalbatzarrak Miriam Uranga lehen alkateordeak Orain talde politikoaren izenean aurkeztu dituen bi mozioen berri jasotzen du: lehenbizikoan proposatzen du Orioko Plaza udal aldizkaria ez gehiago argitaratzea eta, horren partez, Udalaren informazioa zabaltzeko, Karkara aldizkarian behar diren orrialdeak erostea; eta bigarrenean proposatzen du Udaleko kontuen auditoriak egitea, agintaldi honen hasieran, erdian eta bukaeran, Udalaren diru-kontuak eta finantzak zertan diren zehatz jakiteko. Bi mozio horiek udalbatzarraren bilkura honetako gai-zerrendaz kanpo sartzeko, udalbatzakideen gehiengo absolutuaren quoruma behar da; hau da, gutxienez zazpi aldeko boto.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoari ez zaiola egokia iruditzen Orainek aurkeztu dituen bi mozioak bilkura honetako gai-zerrendaz kanpo sartzea, horren berri ez zaielako eman Udala osatzen duten talde politikoei behar bezalako aurrerapenarekin; berak proposatzen du gai horiek hurrengo bilkura bateko gai-zerrendan sartzea, behin dagokion batzorde informatzailean diktaminatu eta gero.

Alkateak hartzen du hitza eta, Bilduren izenean, adierazten du bat datorrela EAJK emandako arrazoiekin eta egin duen proposamenarekin.

Azkenik, Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza Orain talde politikoaren izenean eta adierazten du bat datorrela EAJK eta Bilduk proposatutakoarekin, baldin eta Udalak konpromisoa hartzen badu bi mozio horietan jasotako eskariei lehenbailehen erantzuteko.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoaren argitan, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]: Orainek aurkeztu dituen bi mozio horiek udalbatzarraren hurrengo bilkura batean aztertzeko **UZTEA**, behin dagokion batzorde informatzaileak diktaminatu eta gero.

1.- 6/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2011 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago, 24.675 euroko zenbatekoa du eta 2011ko uztailaren 22ko 299-11 zenbakidun alkate-dekretuz onartu zen.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 7/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2011 zenbakidun espedientea kredituak transferitzeko modalitatean egina dago eta 26.390 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 7/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 26.390 euroko zenbatekoa du.

2.- JENDAURREAN JARTZEA kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.



d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 8/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2011 zenbakidun espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 124.330 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 8/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 124.330 euroko zenbatekoa du.

2.- JENDAURREAN JARTZEA kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2010EKO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2010eko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertze eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2011ko maiatzaren 23ko GAO-n (96. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, oharra aurkezteko, 2011ko maiatzaren 24an hasi zen eta ekainaren 9an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2010eko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak eta Orio Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

5.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, TXU-TXU TRENA ERABILTZEKO TARIFEI BURUZ ETA BERTAN EZARTZEN DIREN IRAGARKIEN TARIFEI BURUZ

Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak, 2011ko uztailaren 27an egindako bilkuran, honako hau diktaminatu zuen, besteak beste: batetik, txu-txu trena erabiltzeko 0,50 euroko tarifa ezartzea, joan-etorriko bidaiak bakoitzeko; eta, bestetik, 75 euroko tarifa ezartzea txu-txu trenean iragarki-modulua jartzeagatik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo



absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA txu-txu trena udaldian erabiltzeko tarifa (0,50 euro joan-etorri bakoitzeko, Herriko Plazatik hondartzara eta buelta) eta **ONARTZEA** txu-txu trenean iragarki-modulua jartzeagatik tarifa (75 euro iragarki-modulu bakoitzeko).

2.- Tarifa horiek **SARTZEA** Ordenantza Fiskalen eta beren eranskinen espediente administratiboan.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela formari, eta ez mamiarri, dagozkion arrazoiengatik. Adierazten du tarifa horiek onartzearen alde daudela, baina iruditzen zaiela gai hori ez zela orain planteatu behar, baizik-eta Ordenantza Fiskalak eta beren eranskinak aldatzeko espedientea tramitatzen denean.

6.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATUA, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du. Kontratua adjudikatzeko lehiaketa publikora bost proposamen aurkeztu dira:

- 1.- Xabier Uranga Salbide, Juan Jose Zubeldia Iraola eta M. Teresa Manzisidor Perez.
- 2.- Francis Isolina Bermudez Peña.
- 3.- Joseba Lopetegí Ribera.
- 4.- Lucia Franchini eta Jose Manuel Vicente Rodriguez.
- 5.- Jose Palau Abad.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak, Kontratazio Mahai gisa eratuta, egin duen adjudikazio-proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2011ko uztailaren 12an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.



2.- Xabier Uranga Salbide, Juan Jose Zubeldia Iraola eta M. Teresa Manzidorri **ADJUDIKATZEA** Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontratua, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko, kontzesio administratiboko erregimenpean. Kontzesioa hamar urterako ematen zaio eta urteko prezio edo kanona 29.500 eurokoa izango da. Adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta entitate bat eratu beharko du, administrazio publikoarekin kontratuak sinatzeko nortasun juridiko nahikoa daukana; bestalde, behin betiko abala (29.500 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela formari, eta ez mamiarri, dagozkion arrazoiengatik. Adierazten du ez dutela ezer esateko aurkeztu diren proposamen ekonomikoei buruz; baina balorazioan puntuaziorik altuena jaso duen eskaintza ondasun-komunitate baten izenean aurkeztu dela eta, indarrean dagoen legediaren arabera, gutxienez erantzukizun mugatuko sozietate batek aurkeztu behar zuela; beraz, Udaleko idazkaritzari eskatzen dio zaintzeko, aurrerantzean, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen dela.

7.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO GAIARI BURUZ: ORIOKO ANTXIOLA KALEKO 5, 7 ETA 9 ZENBAKIDUN ERAIKINEN JABEEN KOMUNITATEARENAK DIREN LURREN LAGAPENA ORIOKO UDALARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako Jabeen Komunitateek beren jabetzapeko lur partzela bat lagapenean hartzeko eskaera egin diote Udalari; partzelak 494,14 m² ditu.

Udal arkitektoak gaiari buruz 2011ko uztailaren 27an idatzitako txosten teknikoan lagapen hori onartzearen aldeko informea ematen du, baldin eta Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 eraikinetako Jabeen Komunitateek, aldez aurretik, dauden egiturazko kalteak konpontzen badituzte, azaleko uren bilketa behar bezala bideratzen badute eta hondatutako zoladurak konpontzen badituzte.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



EZ ONARTZEA Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako Jabeen Komunitateek Udalari egin dioten eskaera, beren jabetzapeko 494,14 m²-ko lur partzela bat lagapenean hartzeko.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO ESKARIA, UDALEKO TALDE POLITIKOEN DIRU-ESLEIPENI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eskariak honela dio, hitzez hitz:

Uztailaren 7an, Udalbatzaren ez ohiko bilkura ospatu zen. Gai zerrendan Udal antolaketa eta funtzionamenduaren inguruko hainbat erabaki bozkatu behar ziren: bilkuraren ohikotasuna, alkate eta zinegotzi liberatuen ordainsariak, beste erakundeetarako ordezkariak, eta abar.

Gai zerrendan landutako gai bat zinegotzi eta alderdi politikoei dagozkien ordainsarien ingurukoa zen. Udalbatzak alderdi politiko bakoitzari 350€-tako ordainsaria ematea onartu zuen.

EAJ udal taldeak kriterio honek ez duela justizia printzipioa betetzen salatu zuen bere garaian udalbatzan. Izan ere 6 zinegotzi edo 2 dituen udal talde baten beharrak ez dira berdinak eta horri erantzun egokia eman ahal izateko alderdiei ematen zaien ekarpen ekonomikoak ordezkariaren proportzionaltasunaren arabera izan behar du.

Ondorioz, EAJ udal taldeak Orioko Udalbatzari zera eskatzen dio:

Alderdi politikoei egiten zaion diru ekarpena beti izan den moduan proportzionala izatea, hau da alderdiko kantitate finko bat eta ondoren zinegotziko beste bat.

Udalbatzara jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorransoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

EZ ONARTZEA Udala osatzen duten talde politikoen diru-esleipenei buruz EAJK aurkeztu duen eta goian jasota dagoen eskari-mozioa.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ZARAGUETA HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) LERRO BAT IREKITZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:



ZARAGUETA HERRI ESKOLAN DBH JARTZEKO MOZIOA

Zaragueta H.E.n eginiko bileran aipatu genituen Orioko herriak Hezkuntza arloan dituen eskaintzak.

Gure eskolako partaideok ezinbestekoa ikusten dugu sare publikoko ikasleek herrian bertan derrigorrezko hezkuntza osatzea. Oraingo egoera, 12 urterekin herritik atera behar izatea, erabat kaltegarria da Zaragueta H.E. komunitatea osatzen dugun guztiontzat.

Hau dena aztertu, bideratu eta konpontzen saiatzeko Hezkuntza Saileko arduradunekin harremanetan jarri gara. Hauekin bilera batzuk egin ondoren beraien aldetik jaso dugun erantzuna oso baikorra izan da.

Proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa jotzen dute ikastetxea handitzeko lanak egitea.

Idatzi honekin batera erantsita doa Hezkuntza Sailaren arkitektoak eginiko proiektua, planoak eta aurrekontua. Hezkuntza Sailaren asmoa da proiektu hau aurrera eramatea Udalarekin batera udal-laguntza finantzaketa sistema bi erakundeen artean hitzartuz.

Aurreko hau azaldu ondoren Zaragueta H.E.k Orioko udalbatzarrari ondorengo eskaria egin nahi dio, onartua izan dadin:

1.- Herriko alkatea harremanetan jar dadila, Aiako Alkatearekin batera Hezkuntza Saileko ordezkariekin Orioko sare publikoko ikastetxean DBHko lerro bat ireki dezan.

2.- Kreditu aldaketa bitartez bideratu dadila DBH martxan jartzeko beharrezkoak diren obren gastuak eta udalak ordaindu ditzala obrak eta ondoren Hezkuntza sailarekin bideratu legozkiokeen dirulaguntzak.

3.- Obren adjudikazioa urriaren amaiera baino lehen egitea.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du mozioan hiru eskari daudela, puntu banatan jasoak, eta bera guztiz bat datorrela lehen puntuarekin (herriko alkatea harremanetan jar dadila Aiako alkatearekin batera, Hezkuntza Sailaren ordezkariekin Orioko sare publikoko ikastetxean DBHko lerro bat irekitzeko); mozioaren bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, berriz, adierazten du zehaztaperen batzuk egin behar direla eta, hortaz, proposatzen du mozioa mahai gainean uztea, onartu gabe, bere ustez ez baita egokia Udalarari eskatzea kreditua aldatzeko espediente bat abiatzea, DBHko lerroa martxan jartzeko gastu guztiak finantzatzeko eta gero Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin bideratzea legozkiokeen dirulaguntzak; bestalde, ez zaio egokia iruditzen, ezta ere, Udalarari eskatzea aipatutako obra horiek 2011ko urria bukatu baino lehen adjudikatzea. Alkateak adierazten du mozioaren azken bi puntu horiek, aldeztu aurretik eta nahitaez, elkarlanerako hitzarmen bat sinatzea eskatzen dutela, Orioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta



Ikerkuntza Sailaren artean; bukatzeko, alkateak dio obren adjudikazioa ahalik eta lasterren egingo dela, baina eperik konprometitu gabe.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa guztiz bat datorrela Zaragueta Herri Eskolaren zuzendariak aurkeztutako mozioaren testuarekin, eta iruditzen zaiola egin beharreko ibilbidea ez dela batere zaila. Hau da, alkateak kreditua aldatzeko espediente bat abiatuko luke, kreditua gehitzeko modalitatean, eta espediente hori Diruzaintzako soberakinaren kargura finantzatuko litzateke; ondoren, kreditua aldatzeko espediente hori diktaminatu egingo litzateke Udaleko Ogasun batzorde informatzailean eta, azkenik, gaia udalbatzarrera eramango litzateke, erabakitzeko.

Alkateak hartzen du hitza oster, lehen esandakoa berresteko, eta berriro nabarmentzen du nahitaezkoa dela Hezkuntza Sailaren eta Udalaren artean elkarlanerako hitzarmen bat sinatzea, eta behar bezala argitu zein diren parte hartzen duten bi aldeek eskubide eta betebeharrak –nork, zer, noiz eta nola egingo duen eta abar–, Udalak kontu hau behar bezala kudeatzeko.

Hori guztia dela-eta, alkateak proposatzen du mozioa mahai gainean uztea, onartu gabe.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoaren argitan, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

EZ ONARTZEA Zaragueta Herri Eskolaren zuzendariak aurkeztutako eta goian jasotako mozioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) lerro bat irekitzeari buruz.

Era berean, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

Mozioa **MAHAI GAINEAN UZTEA, ONARTU GABE**, harik eta alkateak markatu dituen pausoak ematen diren arte eta, beraz, elkarlanerako hitzarmena sinatzen den arte Orioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren artean.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du mozioarekin batera txosten bat datorrela, Zaragueta Herri Eskolan egin litezkeen handitze-lanei buruzkoa; txostena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unitate Teknikoko arkitektoak sinatzen du eta bertan dio Zaragueta eskolan DBHko lerro bat irekitzeko egin beharreko handitze-lanen kostua 700.000 eurokoa izan



litekeela (...a precios teóricos actuales de edificación se estima en 420 x 1650 euros, es decir, 700.000 euros, precio de contrata IVA incluido), baina ez dagoela aurrekontu zehatz eta desglosaturik. Bestalde, Miriam Urangak dio bere talde politikoak (Orain) konpromiso irmoa hartzen duela Zaragueta Herri Eskolan DBHko lerro bat irekitzeko gaiari heltzeko eta behar bezala bideratzeko.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Miriam Uranga zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du argitu nahi duela bere talde politikoa osatzen duten zinegotziek ez dutela jasoko Udalaren inolako diru-saririk modu pertsonalean eta dagozkien diru-esleipen guztiak talde politikoak jasoko dituela zuzenean.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta alkateari eskatzen dio lehenbailehen banatzeko Udala osatzen duten talde politikoei, batetik, onartutako dekretuen zerrenda eta, bestetik, Kontu-hartzailetza Zebitzuak ordaindutako fakturen zerrenda. Bestalde, adierazten du beren harridura eta desadostasuna agertu nahi dutela alkateak bidali dien posta elektronikoko bat dela-eta; esaten du alkatea beren jardura fiskalizatu nahian dabilela ematen duela eta azalpenak eskatzen dizkio horregatik. Alkateak erantzuten dio esanez EAJk arretaz irakurri beharko lukeela posta elektronikoko horren edukia, alkateak nahi duen gauza bakarra delako jakitea zein informazio ateratzen den Udaletik, hartara udal kudeaketa egoki bat egiteko.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,